

KARAKOLA ETA BAREA

Mendatako Maria Concepcion Mingok kontatuta

Etxe batean bizi izan ei ziran aita bat eta hiru seme, eta izan ziran pobre-pobreak eta... seme nagusienak esan eutsan aitari:

- Aita traktore bat erosi behar dogu ba –esan eutsan eta–.
- Baina seme ez dago dirurik eta pobriek gara eta zelan erosiko dogu traktore ba? hurrengorantz ia apur bat aurreratzen dogunean, ia ba...
- Bueno, bale ba, bale ba...

Hurrengo aldiz bigarren semeak esan eutsan baze:

- Aita nik kotxe bat gura dot erosi.

Eta besteak esan deutso baze:

- Baina seme begitu traktorea be ezin izan dogu erosi eta, kotxea zelan erosiko dogu ba ez daukagu dirurik eta? gerotxua diru gehitxuago aurreratzen dogunean ba... orduantxe ia erosten badogu. Bueno halan pasatu zan, da hirugarren semeak esan eutsan baze:

- Aita nik motorra gura dot ba.
- Baina seme, zelan erosiko dogu ba, traktorea ezin dogu erosi, kotxea ezin dogu erosi, ezin geinke motorrik erosi ez daukagu dirurik eta.

Eta seme gazteena arrabioATEGAZ joan zan!, eta karakola eta barea ikusi zituen alkarren ganean doazela eta esan eutsen baze:

- Hara!

Esan eta ostikada bat emon eutsen eta:

- Hara! zuek be oinez, guk be ez daukagu dirurik ez traktorea, ez kotxea ez motorra erosteko eta.

Mendatako gure geurea denontzat

Idoia Mallea Lamikiz
Mendatako Udala
Bilbo 2002